

## Funtsen gordailuzaintza-zerbitzurako aliantza estrategikoa adostu dute Cecabank eta Kutxabankek

Kutxabank da Inbertsio-funtsak, Pentsio-funtsak eta BGAEak estatuko merkaturakomertzializatzen dituen 5. taldea. 25.000 milioi eurotik gorako posizioa kudeatzen du Taldeak.

Inbertsio kolektiboko erakundeen, pentsio-funtsen eta BGAEen gordailuzaintza-jarduerarako aliantza estrategikoa sinatu dute Cecabank eta Kutxabankek.

Gordailuzaintza-jardueraren liderra da Cecabank, 119.000 milioi eurotik gora baititu gordailuriko ondarean, eta 29 erakunde kudeatzaile ematen die zerbitzu hori. 2019an, % 10,8 gehitu da Cecabanken gordailuriko ondarea, hau da, sektorearen gainerakoak baino % 5,8 gehiago.

Kutxabank da erakunde liderra BGAEetan 9.500 milioi eurotik gorako ondarearekin, eta inbertsio kolektiboko erakunde, pentsio-funts eta BGAEak merkaturatzen dituen bosgarren taldea da Espainian, 25.000 milioi eurotik gora dituelarik banatuta 144 inbertsio-bidetan.

Horrela, bi erakundeek elkarrekiko duten konfiantza finkatzen du akordioak, aliantza horrekin lor ditzaketen sinergiak agerian utziz.

Bestalde, gordailuzain independente batek dituen zereginetan espezializazioa ematen du Cecabanke, hau da, erakunde kudeatzaileen jardura gainbegiratzea, aktiboak zaindu, erregistratu eta administratzea, eta bere independentzia-posiziotik esku-dirua kontrolatzea, handizkako bankua baita, eta ez baitu hirugarrenen aktiboak kudeatzeko edo merkaturatzeko inolako jarduerarik bere taldean.

Aliantza hori beste aurrerapauso bat da Kutxabankentzat, bezeroei eskaintzen dien zerbitzua etengabe hobetzeko bidean, aktiboak kudeatu eta merkaturatzeko bere “core” jardura lehenetsiz, kontrol-prozesuetan independentzia handiagoarekin eta gordailuzaintza-jardueran espezialista den Cecabank-ek ematen duen berme gehigarriarekin.

## **Gordailuzain partaideentzat independentea, segurtasun-hobekuntza**

Gordailuzaintza-jarduera merkaturatze eta kudeaketatik bereizteak aktiboak kudeatzeko industria osoa sendotzen du eta inbertsio- eta pentsio-funtsetako partaideei segurtasun-gehigarria ematea ahalbidetzen du.

Aktiboak kudeatzeko industria gero eta kontzienteago da gordailuzain independentea eta kalitatezkoa izateak dituen abantaila eta onurez. Hain zuzen, aktibo-kudeaketaren industria eta inbertitzaileen babesak kontinentean harmonizatzeko Europar Batasunean egin diren ondoz ondoko lege-erreformek bultzada handia eman dute gordailuzain independenteak bilatu eta izendatzea susta dadin.

### Cecabankeko Komunikazio Saila

T. +34 91 596 54 82  
T. +34 91 596 79 74  
[www.cecabank.es](http://www.cecabank.es)  
[comunica@cecabank.es](mailto:comunica@cecabank.es)

### Kutxabankeko Komunikazio Saila

T. +34 94 401 82 92  
[eruizdez@kutxabank.es](mailto:eruizdez@kutxabank.es)